

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOAREN EGOKITZAPENA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoaren egokitzapena
Adaptación de la Programación didáctica anual/de curso

ikastetxea: <i>centro:</i>	ABADIÑO BHI	kodea: <i>código:</i>	015071
etapa: <i>etapa:</i>	DBH	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	3.Maila
irakasgaia: <i>materia:</i>	MATEMATIKA		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA	ZIENTZIAK		
DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	KONPETENTZIA MATEMATIKOA		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	ESTHER MADARIAGA eta BEGOÑA PUENTES	ikasturtea: <i>curso:</i>	2019-2020

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
1. Banaka edo taldean, eguneroko bizitzatik ateratako problemak, beste zientzia batzuetakoak edo Matematikakoak planteatzea eta ebaztea, eta zenbait estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen-prozesua justifikatzea, emaitzak interpretatzea eta egoera berrietan aplikatzea, gizarte-ingurunean modu eraginkorragoan jardun ahal izateko.	1. Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak, haien eragiketak eta propietateak erabiltzea problemak ebazteko, kalkulatzeko modu egokiena (buruzkoa, arkatza eta papera, kalkulagailua) aplikatuz, eta testuinguruari egokituta adieraztea. <ul style="list-style-type: none"> ● Zenbaki motak -arruntak, osoak, arrazionalak eta irrazionalak- bereizten ditu eta informazio kuantitatiboa

2. Matematikako ezagutza aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, eta beste ezagutza-arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.

3. Natura- eta kultura-inguruneko forma geometrikoak identifikatzea, elementuen, erlazioen eta propietateen ezagutza erabiliz, errealitatea deskribatzeko, eta ezagutza geometrikoak aplikatzea inguruan dugun mundu fisikoa ulertzeko eta analizatzeko, eta hari buruzko problemak ebazteko.

adierazteko eta interpretatzeko erabiltzen ditu.

- Kalkuluak efikaziaz egiten ditu zenbaki horiekin, buruzko kalkulua, arkatza eta papera edo kalkulagailua erabiliz, bai eta berreketak eta erroketak ere.
- Zatikiak adierazpen hamartar finituekin edo periodikoekin lotzen ditu, eta alderantziz.
- Erroketak kalkulatu ditu eta berreketekin lotzen ditu.
- Idazkera zientifikoa erabiltzen du zenbaki handiak edo txikiak adierazteko, eta haien arteko eragiketak egiten ditu.
- Iritzirako kalkuluak behar bezala egiten ditu eta emaitzak baliagarriak diren erabakitzen du.
- Eteko eta biribiltzeko teknikak aplikatu ditu, zenbakiak doitasun egokiz adierazten ditu eta egindako errorea bornatzen du.
- Zenbaki arrazionalen eta irrazionalen problemak ebazten ditu.

2. Enuntziatu baten bidez adierazitako propietate bat edo erlazio bat hizkuntza aljebraikoan adieraztea, eta zenbakizko sekuentzien eratze-legeak adierazten dituzten formulak lortzea, kasu errazetan.

- Ahozko informazioa hizkuntza aljebraikoan adierazten du, eta alderantziz.
- Zenbakizko erlazioak eta jarraibideak deskribatu ditu.
- Egindako aieruak baliozkoak diren aztertzen eta egiaztatzen du.
- Jarraitutako prozesua arrazoitzeko eta adierazteko gai da, frogapen sinpleak egiteko, ezagutza aljebraikoa baliatuz.

3. Adierazpen aljebraiko sinpleak lortzea eta erabiltzea, hizkuntza aljebraikoa erabiltzea eguneroko bizitzako problemak ebazteko, lehen eta bigarren mailako ekuazioak eta bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak planteatuz eta ebaziz, eta lortutako emaitzak interpretatzea.

- Adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa kalkulatu du.
- Polinomioen arteko eragiketak egiten ditu.

4. Kalkuluak eta iritzirako kalkuluak (zenbakizkoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzean prozedura egokienak (buruzko kalkulua, idatzia, kalkulagailua...) erabiliz, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, eta emaitzak sistematikoki berrikustea.

5. Beren adinerako egokiak diren eta emaitzak eta ondorioak argi eta garbi eta koherentziaz justifikatzeko eta aurkezteko norberaren pentsamendua adieraztea errazten duten hizkuntza arrunteko eta hizkuntza matematikoko elementuak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak) erabiliz, arrazoitzea eta argudiatzea.

6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) behar bezala erabiltzea kalkuluak egiteko, denetariko informazioak bilatzeko, tratatzeko eta

- Adierazpen polinomiko sinpleak faktorizatzen ditu.
- Laburbidezko formulak (binomioaren berbidura, batuketa bider kenketa) erabiltzen ditu hizkuntza aljebraikoari buruzko denetariko testuinguruetan.
- Lehen eta bigarren mailako ekuazioak ebazten ditu, grafikoki eta aljebraikoki.
- Bi ezezaguneko bi ekuazio linealen sistemak ebazten ditu, grafikoki eta aljebraikoki.
- Ekuazioen bidez adieraz daitezkeen egoerak hizkuntza aljebraikoan adierazten ditu, eta ezezagunak identifikatzen ditu.
- Emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen ditu, jarraitutako prozesua azaltzen du, arrazoibide zuzenen bidez, eta koherentzia balioesten du.
- Software egokia erabiltzen du kalkulu aljebraikoak egiteko, grafikoki adierazteko, eta ekuazioak eta sistemak ebazteko.

4. Proporzionaltasun geometrikoko erlazioak identifikatzea eta neurri zuzenak edo zeharkakoak kalkulatzeko egoera errealean, tresna, teknika edo formula egokiak erabiliz.

- Antzeko irudiak identifikatzen ditu, elementu baliokideen arteko proporzionaltasun-erlazioak ezartzen ditu eta antzekotasun-arrazoiak kalkulatu du.
- Talesen teorema aplikatzen du eta triangeluen antzekotasuna erabiltzen du geometriako problemak ebazteko.
- Pitagorasen teorema aplikatzen du neurri-problemak ebazteko.
- Benetako luzera- eta azalera-neurriak kalkulatu ditu, planoak, mapak, airetiko argazkiak eta abar oinarri hartuta.
- Leku geometrikoak identifikatzen eta deskribatzen ditu, haien propietateetatik abiatuta.

5. Erlazio linealak eta koadratikoak erabiltzea zenbait modutan -ahoz, taula bidez, grafiko bidez edo aljebraikoki- adierazitako egoera

adierazteko, bai eta Matematika ikasten laguntzeko ere.

7. Matematikak eguneroko bizitzan duen zeregina balioestea, hura erabiliz gozatzea, eta Matematikako jardueraren moduen eta jarreraren balioa bereiztea; esate baterako, alternatibak aztertzea, hizkuntzaren zehaztasuna edo malgutasuna eta soluzioak bilatzen iraunkorra izatea.

8. Matematika kulturaren parte dela balioestea, bai ikuspegi historikotik bai gaur egungo gizartean duen zereginagatik, eta eskuratutako Matematikako kompetentziak aplikatzea, zenbait fenomeno sozial analizatzeko eta balioesteko; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna edo bizikidetzak baketsua.

errealak aztertzeko, eta haien artean dagokion transferentzia egitea.

- Magnitudeen arteko mendekotasun lineal eta koadratikoak identifikatzen ditu.
- Aztertu beharreko funtzioarekin lotutako balio-taula egiten du.
- Dagokion grafikoa marrazten du, eskala egokia erabiliz.
- Erlazioaren adierazpen aljebraikoa lortu eta grafikoarekin lotzen du, eta alderantziz.
- Benetako egoerak modelizatzen ditu, funtzio linealak, afinak edo koadratikoak erabiliz.
- Zuzen baten ekuazioak zehazten ditu, zuzena marraztu eta malda behar bezala interpretatzen du.
- Parabola 2. mailako funtzio polinomikoarekin lotzen du eta elementu bereizgarriak lortzen ditu.
- Modelotik ondorioak ateratzen ditu eta aztertutako fenomenoaren testuinguruan kokatzen ditu.
- Tresna teknologiko egokiak erabiltzen ditu, funtzioak adierazteko eta grafikoekin lotzeko.

6. Informazio estatistikoak sortzea eta interpretatzea, taulak, grafikoak eta zentralizazio- nahiz sakabanatze-parametro estatistikoaren kalkuluak oinarri hartuta.

- Populazioa eta lagina bereizten ditu, eta aukeratutako laginaren adierazgarritasuna balioesten du.
- Aldagai kualitatiboak eta kuantitatiboak bereizten ditu.
- Informazioa taulatan eta grafikotan antolatzen du.
- Datu multzo baten maiztasun absolutuak eta erlatiboak kalkulatzeko erabiltzen ditu.
- Banaketa baten batez bestekoa, mediana, moda eta desbideratze tipikoa kalkulatzeko erabiltzen ditu.
- Taula bidez, grafiko bidez edo parametro estatistikoaren bidez adierazitako informazioa kritikoki interpretatzen du, eta populazioari buruzko ondorioak ateratzen ditu.
- Bitarteko teknologiko egokiak erabiltzen ditu grafiko estatistikoak lortzeko,

parametro estatistikoak kalkulatzeko, eta gizarteko edo eguneroko bizitzako informazioa jakinarazteko.

7. Problema ebaztea modelo heuristiko bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (zenbaketa exhaustiboa, indukzioa, antzeko problemak bilatzea, amaieratik hasia, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuri jarraitu zaion adieraziz.

- Problema irakurtzen eta ulertzen du, eta proposatutako problemen datuak eta ezezagunak identifikatzen ditu.
- Problema ebazteko aukera ematen duten modelo matematiko sinpleak erabiltzen eta egiten ditu, eta espero daitezkeen emaitzei buruzko iragarpenak egin eta haien egokitasuna balioesten du.
- Zenbait estrategia heuristiko dakizki eta aplikatzen ditu, problema ebazteko.
- Problema ebazteko zenbait alternatiba aztertzen ditu, arrazoibide zuzenen bidez balioesten ditu eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten du.
- Soluzioa egiaztatzen du, testuinguruan interpretatzen du, jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak diren ondorioak ateratzen ditu.
- Lortutako emaitzak jakinarazten ditu, garatutako ideiak eta arrazoiketak hizkuntza argi batez azaltzen ditu, eta txosten edo dokumentu digitalak egiten ditu, beharrezkoa bada.
- Denetarikoa ebazteko aukera ematen duten modelo matematikoak erabiltzen eta egiten ditu.
- Ikerketa txikiak egiten ditu, zenbakizkoak nahiz geometrikoak.

8. Jarduera matematikoarekin lotutako jarrerak sistematikoki balioestea eta erabiltzea; esate baterako, jakin-mina,

pertseberantzia eta norberaren ahalmenetan konfiantza izatea, ordena eta berrikuspen sistematikoa. Halaber, lan-taldean integratzea, besteen iritziak ikasketa-iturri gisa errespetatuz eta balioetsiz, eta helburu komun bat lortzeko lankidetzan aritzea.

- Badaki Matematikako eragiketak eta prozedurak menderatzea garrantzitsua dela, eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duen tresna delako.
- Lanean interesa agertzen du eta etengabe saiatzen da.
- Emaitzak ordenan, argi eta garbi, eta txukun aurkezten ditu.
- Prozesuak eta emaitzak bere mailari dagokion zorrotasunez arrazoitzen eta azaltzen ditu.
- Talde-lanerako zereginak banatzen laguntzen du eta hartutako konpromisoak betetzen ditu.
- Alternatibak planteatzen ditu eta taldeko eztabaida-prozesua eta iritzi-trukea balioesten du, hobetzeko aukera bat den aldetik.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

EDUKI KOMUNAK

a) Zehar konpetentziekin lotutakoak: PROZEDURAK ETA JARRERAK

- Informazioa identifikatzea, lortzea, gordetzea, balioestea , ulertzea, azaltzea
- Ideiak, zereginak eta proiektuak planifikatzea, eta haien bideragarritasuna aztertzea.
- Egindako plangintza betetzea, ebaluatzea eta hobekuntza-proposamenak lantzea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea (enpatia eta asertibitatea)
- Taldean ikasteko lanetan laguntzea eta elkarlanean aritzea
- Gatazkak kudeatzea
- Norberaren emozioak, motibazioa eta gogo-indarra erregulatzea
- Pertseberantzia eta malgutasuna lantzea.

b) Ikasgaiarekin lotutakoak: PROBLEMEN EBAZPENA

- Problema ebazteko metodo orokorrak
- Problema ebazteko heuristiko ohikoenak: proba/errorea, problema errazago bat ebaztea, problema bera problema txikiagotan zatitzea, problema berriz formulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa zehatza, diagramak edo marrazkiak.
- Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problema ebaztea.
- Problema ebazteko erabilitako prozesua ahoz **adieraztea**. Prozesua **justifikatzea** eta emaitzak egiaztatzea.
- Problemen soluzioa bilatzen **saiatua** eta **malgua** izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardura izatea.
- Eguneroko bizitzako problemei aurre egiteko, Matematika garrantzitsua dela jakitea eta balioestea, eta gizarte arazo batzuk aztertzea, Matematikaren zeregina eta eragina kritikoki aztertuz.

INFORMAZIO- ETA KOMUNIKAZIO-TEKNOLOGIAK

- Kalkulagailuak eta ordenagailuak (matematika-laguntzaileak)erabiltzeko jarraibideak. Horiek nola erabili zenbakizko kalkulak, kalkulu aljebraikoak, grafiko errazak edota estatistikako ariketak egiteko.
- Erabilitako prozesuei eta lortutako emaitzei eta ondorioei buruzko txostenak eta dokumentuak egitea.

1.Ebaluazioa:

ARITMETIKA

1. Unitatea

ZENBAKI ARRAZIONALAK

- Zatikaren definizioa.
- Zatiki baliokideak kalkulatzeko
- Zatikiki laburtezinak kalkulatzeko
- Zatikiki alderatzea
- Zatikien arteko eragiketarako egitea
- Zatikiki erabiltzen PROBLEMAK ebaztea
- Zenbaki hamartar motak. Zatikiki zenbaki hamartar gisa adieraztea eta zenbaki hamartarrak zatiki gisa adieraztea.
- Zenbaki arrazionalaren kontzeptua.

2. Unitatea

BERREKETAK ETA ERROAK

- Berretzaile osoko berreketak. Propietateak.
- Berretzaile oso eta berrekizun arrazionalako berreketen eragiketak. Sinplifikazioa.
- Erro karratua: definizioa eta kalkulua, erro karratuen arteko eragiketak, erro batetik biderkagaiak ateratzea.
- Idazkera zientifikoa: Definizioa eta eragiketak. Erabilera trebea, kalkulagailurik gabe eta kalkulagailuarekin.
- Zenbaki irrazionalen eta errealen definizioa.
- Hurbilketak eta erroreak: eten eta biribilduen arteko desberdintasuna, errore absolutu eta erlatiboaren kalkulua.
- Tarteak: definizioa, zenbakizko zuzenean adierazpena eta tarte motak.

3. Unitatea

ZENBAKIZKO PROPORZIONALTSUNA

- Magnitude **zuzenki proportzionalak** identifikatzea eta kalkulatzea. PROBLEMAK ebaztea hiruko erregela sinple erabiliz.
- Magnitude **alderantziz proportzionalak** identifikatzea eta kalkulatzea. PROBLEMAK ebaztea alderantzizko hiruko erregela sinple erabiliz.
- Banaketa zuzenki proportzionalak egitea.
- Ehunekoak: Ehunekoak, ehuneko igoerak eta jaitsierak eta ehuneko kateatuak kalkulatzea, PROBLEMAK ebaztean ehunekoekin.

2. Ebaluazioa:

2. EBALUAZIOA

ALJEBRA

4. Unitatea

POLINOMIOAK

- Hizkuntza naturaletik aljebraikora pasatzea, eta alderantziz.
- Monomioen definizioa. Monomioen arteko eragiketak
- Polinomioen definizioa. Polinomio baten zenbakizko balioa. Polinomio baten erroak. Eragiketak polinomioekin (batuketa, kenketa eta biderketa).
- Biderkagai komuna ateratzea.
- Laburbidezko formulak (Idenditate nabarmenak)
- Zatiki aljebraikoak: definizioa, zatiki aljebraiko errazak sinplifikatzea eta eragiketak sinpleak (biderketak eta zatiketak).

5. Unitatea

LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO EKUAZIOAK

- Ekuazioak. Elementuak (ekuazio-motak, soluzioak, ekuazio baliokideak...)
- Lehen mailako ekuazioak ebazteko teknikak.
- Bigarren mailako ekuazio baten soluzio kopurua aztertzea.
- Bigarren mailako ekuazioak ebazteko teknikak.
- PROBLEMAK ekuazioen bidez ebaztea.

6. Unitatea

EKUAZIO LINEALEN SISTEMAK

- Bi ezezaguneko ekuazio lineal baten soluzioak lortzea eta soluzioak grafikoki adieraztea.
- Ekuazio linealen sistema baten soluzio kopurua zehaztea.
- Sistemak ebazteko metodoak: Ordezkatze-metodoa, Berdintze-metodoa eta Laburtze-metodoa
- PROBLEMAK ekuazio-sistema baten bidez ebaztea.

3. Ebaluazioa EGOKITZAPENA

Egungo egoera dela eta, ebaluazioaren gutxieneko helburuak eta edukiak moldatu ditugu eta horrelaxe landuko dira/*Debido a la situación actual los objetivos y contenidos de esta última evaluación se trabajarán de la siguiente manera:*

- Ikasturtea bukatu arte, 7. 8. eta 9. unitateekin jarraituko dugu lanean online saioetan , (berreskuratzeko dauden ikasleekin jarraituko den prozedura, beheko oharretan adierazi dugu) / *hasta la finalización del curso seguiremos trabajando las unidades 7, 8 y 9 en las clases online (Las recuperaciones se explican más abajo, en las observaciones)*
- Udako txostena eta iraileko erreposoa **kurtsoko gutxiengoak (3.ebaluazioarenak barne)**sendotzeko izango da. / *el dossier de verano y el repaso de septiembre servirán para consolidar los mínimos del curso.*

EDUKIEN SEKUENTZIA/secuenciación de contenidos

7.Unitatea

FUNTZIOAK

- Funtzio kontzeptua
- Funtzio bat adierazteko moduak (enuntziatu, ekuazio, balio-taula edota grafiko baten bidez)
- Funtzio baten ezaugarriak: Eremua eta Ibiltartea, Jarraitasuna, Ebakidura-puntuak, gorakortasuna eta Beherakortasuna, maximoak eta minimoak, periodikotasuna eta simetria.
- Funtzio baten azterketa globala.

8.Unitatea

FUNTZIO LINEALAK

- Funtzio linealaren definizioa eta elementuak.
- Proporzionaltasun zuzeneko funtzioak eta funtzio konstanteak.
- Funtzio lineal bat grafikoki adieraztea.
- Zuzen baten ekuazioaren beste forma batzuk (Puntu-malda ekuazioa eta ekuazio orokorra)
- PROBLEMAK funtzio linealen bidez ebaztea.

9.Unitatea

ESTADISTIKA

- Populazio eta Laginaren definizioak. Ikasleen testuingurua kontuan hartuta, populazioak eta laginak zehaztea.
- Aldagai estatistiko motak (kualitatiboa edo kuantitatiboa, diskretua edo jarraitua).
- Datuak nola zenbatu. Maiztasun-taulak (datu bakanduak edo tarteetan pilatuak). Maiztasun-motak (absolutua, erlatiboa, metatua)

- Grafiko estatistikoak. Grafiko motak. Aldagai motaren eta informazio motaren arabera egokitu: Barra- diagrama, Maiztasun poligonoa, Sektore-diagrama eta Histograma.
- Batez besteko aritmetikoa.

UDAKO TXOSTENA ETA IRAILA/dossier de verano y septiembre

Urtean zehar (3.ebaluazioa barne) landutako gaiekin txosten bat prestatuko zaie gai horietako ariketak eta problemak errepasatu ahal izateko. / *Se les preparará un dossier con los temas trabajados durante el curso (3ª evaluación incluida) para poder repasar los ejercicios y problemas.*

Irailean birpaso orokorra egin eta 8. unitetearen minimoak landuko dira. / *En septiembre se realiza un repaso general y se trabajarán además los contenidos mínimos de la unidad 8.*

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

BALIABIDE DIDAKTIKOAK. EGOKITZAPENA

Classroom bitartez ari gara klase ematen. Lanak normalean hor partekatzen ditugu ikasleekin. Bideo- konferentziak egiteko, Google meet edo jit.si baliabideak erabiltzen ari gara. / *Se imparten las clases en Classroom y es ahí donde se entregan las tareas normalmente. Para las vídeo-conferencias utilizamos Google meet o la aplicación jit.si*

Udako txostena eskaneatu eta Classroomen jarriko dugu. Beraiek, **koaderno** batean egingo dituzte lanak. / *Escanaremos el dossier de verano y lo pondremos en classroom. Los/as alumnos/as harán las tareas en un **cuaderno**.*

Eskolako ikasle guztiek dute aukera online lana egiteko. Arazoren bat egonez gero aurrerago, fotokopiak bidaliko dizkiegu. *Todos/as los/as alumnos/as pueden trabajar online. En caso de haber algún problema se les darán fotocopias.*

BESTE BALIABIDE BATZUK/OTROS RECURSOS

- *Testu liburua / Libro de texto (Matematika akademikoa (Ebatzi saila) 3DBH-Zubia/Santillana argitaletxekoa)*
- *Kurtsoan zehar banatutako txostenak / Dossieres repartidos durante el curso.*
- *Klaseko classroomean dituzten materialak(bideoak, aurkezpenak, ariketak....) / materiales que tienen en el classroom de clase.*

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] EGOKITZAPENA</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico...]. ADAPTACIÓN</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Online klaseetara konektatzea ● Testu liburuaren ariketak eta Classroomen bidalitako lanen kontrola. ● On line frogak <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN ADAPTACIÓN</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Conectarse a las clases online ● Las tareas del libro de texto y de Classroom. ● Pruebas online 	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] EGOKITZAPENA</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación]. ADAPTACIÓN</p> <p>-1go eta 2. ebaluazioko notak izango du pisu gehien. Horretaz gain, 3.ebaluazioko lan guztiek nota hori igotzeko erabiliko dira.</p> <p>**Hala ere, 1go eta 2.ebaluazioko notan eragina izan dezake 3.ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe.</p> <p>-Berreskurapenak gainditzen duten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.</p> <p>-Martxoaren 13tik aurrera:</p> <p>-Lanak epean entregatzea</p> <p>-Lanen kalitatea</p> <p>-Online frogen emaitzak</p> <p>-Ikasleen jarrera eta interesa</p> <p>Hartuko dira kontuan 1go eta 2. ebaluazioetako batzbesteko nota igotzeko edo jeisteko orduan.</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN ADAPTACIÓN</p> <p>-Las notas de la 1ª y 2ª evaluación tendrán el mayor peso. El trabajo de la 3ª evaluación se tendrá en cuenta para subir nota.</p> <p>No obstante, influirá en la nota final el hecho de que el/la alumno/a no haya trabajado durante la tercera evaluación o no se haya conectado a las clases sin justificación aparente.</p> <p>-Las/os alumnas/os que recuperen la 2ª evaluación obtendrán 5 como calificación.</p> <p>-Desde el 13 de marzo:</p> <p>La entrega de tareas en el plazo fijado, la calidad de los trabajos ,las notas de las pruebas online y la actitud e interés del alumno/a serán lo que tendremos en cuenta a la hora de subir o bajar la media obtenida entre la 1ª y 2ª evaluación.</p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekerperazio-sistema...]. EGOKITZAPENA</p>	

CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]. **ADAPTACIÓN**

1go eta 2. ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko. Beraz, hauxe izango da ikasleentzako berreskurapen sistema / *Ya que los objetivos y contenidos evaluables del curso 19-20 se han reducido a la 1ª y 2ª evaluación, el sistema de recuperación para el alumnado es el siguiente:*

1go eta 2. Ebaluazioak berreskuratzeko irizpideak: (GUTXIENGOetan oinarrituta):

a) 2. Ebaluazioaren errekupeazioa: Txosten bat emango zaie ebaluazioan zehar landutako edukiak errepasatzeko eta on-line azterketa egingo zaie.

b) 1go ebaluazioaren errekupeazioa:

b.1) 1go ebaluazioa bakarrik dutenentzat: Txosten bat emango zaie ebaluazioan zehar landutako edukiak errepasatzeko eta azterketa egingo zaie.

b.2) 1go eta 2. ebaluazioak dituztenentzat:

b.2.1) 2. ebaluazioa GAINDITZEN badute eta 1go ebaluazioa PENDIENTE:

Txosten bat emango zaie ebaluazioan zehar landutako edukiak errepasatzeko. Ondo eginez gero, gaindituta izango dute 1. ebaluazioa.

b.2.2) 2. ebaluazioa EZ badute GAINDITU eta 1go ebaluazioa PENDIENTE:

Ekainean beste aukera bat emango zaie, azterketa "globala" egiteko (1go eta 2. ebaluazioaren minimoak)

Criteria para la recuperación de la 1ª y 2ª evaluación (basada en MÍNIMOS)

a) *Recuperación de la segunda evaluación: Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación y se les realizará un examen on-line.*

b) *Recuperación de la 1ª evaluación:*

b.1) *Los que sólo tienen la 1ª evaluación:*

Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación y se les realizará un examen.

b.2) *Los que tienen la 1ª y 2ª evaluación:*

b.2.1) Si APRUEBAN la 2ª evaluación y tienen PENDIENTE la 1ª evaluación:
Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación. Si lo hacen bien, aprobarán la 1ª evaluación.

b.2.2) Si NO han APROBADO la 2ª evaluación y tienen PENDIENTE la 1ª evaluación: Se les dará otra oportunidad en Junio para hacer un examen "global" (los mínimos de la 1ª y 2ª evaluación).

OHARRAK / OBSERVACIONES

Momentuz ez dakigu aurrez aurreko azterketak egiteko aukerarik izango dugun ala ez, beraz ez dugu aukera hau baztertu ikasle batzuen egoerak horrela eskatzen badu. / *De momento no sabemos si tendremos opción de realizar exámenes presenciales, por ello no descartamos la opción si la situación de algunos alumnos lo requiriera.*

Ohiko deialdian gaitutuko ez balute, ezohiko deialdian aukera izango dute gaitutzeko. / *Si no aprobaran en la convocatoria ordinaria, tendrán la opción de aprobar en la extraordinaria.*

PENDIENTEAK / EGOKITZAPENA

- Ikuskaritzaren informazioaren zain gauden bitartean, momentuz, ezin izango dugu modu presentzian azterketarik egin. Beti bezala, landu dituzten txostenen inguruko frogak bat izango da. / *Mientras esperamos la información de inspección, no podremos hacer exámenes de modo presencial. Como siempre, será una prueba sobre los contenidos trabajados en el dossier repartido.*
- Zentrura bueltatzeko aukerarik ez badago, frogak era digitalean egingo dira, txostenetako edukiak, hau da, aurreko ikasturteko edukiak, bereganatu diren edo ez ziurtatu ahal izateko. *Si no hay opción de volver al centro, la prueba se realizará de forma digital, para poder comprobar si se han adquirido los contenidos trabajados en el dossier, es decir, los contenidos del curso anterior.*